

**DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOAREN ONURA IZAPIDETZEKO BEHARRARI BURUZKO
INFORMAZIO-DOKUMENTUA,**

**153/18 DEKRETUAREN 26.4 ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERAKOA,
LAGUNDUTAKO PERTSONA ESKUBIDEAREN ONURADUN IZANGO EZ DELA USTE DENEAN**

Nik (.....jn./and, NAN duena)
ADIERAZTEN DUT: guardiako letraduaren laguntza izan dudala (letraduaren elkargokide zenbakia:), Epaitegi honetan:.....,
Prozedura honetan:.....

Jarraian datorren informazioa jaso dut:

1. DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA ETA OFIZIOZKO TXANDA.

Doako laguntza juridikoaren onura aitortzen zaie auzitan aritzeko baliabide nahikorik ez dutela egiaztatzen duten pertsoneri; ondorioz, doako defentsa eta ordezkari teknikoak ematen zaizkie.

Ofiziozko txandaren bidez izendatutako profesionala, bere esku-hartzea nahitaezkoa delako eta eskatzaileak abokatu partikular bat izendatu ez duelako, doakoa izango da, doako laguntza juridikoaren onura aitortzen denean.

2. DOAKO JUSTIZIAREN ONURA LORTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Onura hori lortzeko, beharrezkoa da familia-unitateak ondorio anitzeko errentaren adierazle publikoa (IPREM) bi aldiz ez gainditzea, familia-unitate batean integratuta ez dauden pertsonen kasuan; bi aldiz eta erdi ez gainditzea, lau kide baino gutxiagoko familia-unitatea denean; eta hiru aldiz ez gainditzea, lau kide edo gehiago direnean.

3. DAGOKION ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO EDO DEFENTSAK ERAGINDAKO GASTUAK ETA KOSTUAK ORDAINTZEKO BEHARRA.

Baldintza orokorreko buruzko aurreko informazioa eta nire baliabide ekonomikoei buruz letraduari emandako informazioa kontuan hartuta, jakinarazi didate, ustez, ez dudala lortuko doako justiziaren onura.

Era berean, onuradun izateko aukeraz ohartarazi didate; horretarako dagokion espedientea abiarazteko aukera izango dut Orientazio Juridikoko Zerbitzuan eskabidea eginda (Barroeta Aldamar 10, beheko solairua - 48001 BILBO). Eskaera hori 15 eguneko epean egin beharko da, eta inprimaki hau aurkeztu beharko da, eskatzen zaidan gainerako dokumentazioarekin batera. Hala egin ezean edo espediente hori izapidetu ondoren onuradun izan ezean, nire defentsak eragindako gastu eta kostu guztiak ordaindu beharko ditut.

Bilbon, 20.....

ESKATZAILEAREN SINADURA
(edo legezko ordezkariarena)

LETRADUAREN SINADURA